# Xedapen Orokorrak

**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA**

**5803**

171/2008 DEKRETUA, urriaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituena (Erein programa).

Landa Ingurunearen Garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legearekin bat etorriz, euskal nekazaritzaren eta landa-ingurunearen garapen jasangarriaren eta funtzio-aniztasunaren landa-garapeneko politikaren helburu nagusiak honako hauek dira: landa-ingurunea eustea; landa-inguruneetako nekazaritzaren, enpresen eta egitura ekonomikoen lehiarako gaitasuna hobetzea eta areagotzea; dekretu honetan, 167/2000, 274/2000 eta 100/2002 dekretuen bidez jada egin zen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko baserri-aldeak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu dira eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkion dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan aurreikusiko diren kredituen barruan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, dioenarekin bat etorriz.

Egitura-funtsei buruzko xedapen orokorrak ezarri dituen Kontseiluaren uztailaren 11ko 1083/2006 zenbakiko Erregelamenduak (EE), egitura-funtsek zer helburu lortzen lagundu behar duten eta Europar Batasuneko kide diren herrialdeek eta eskualdeek zer baldintza bete behar dituzten zehazten ditu, funtsei atarramentua ateratzeko. Bestalde, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura den nekazaritzaren garapenari emateko laguntzari buruzko 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2008 Erregelamenduak (EE) 71. artikuluan dio zenbait neurri, horien artean dekretu honetako II. kapituluan jasotzen direnak, LGENFk finantzatuko dituela aldi berean, betiere, artikuluan jasotako eta aplikatu beharreko gainontzeko araudiko baldintzak betetzen badira. Neurriok Landa Garapen Jasangarriko Plana 2007-2013 (LGJP) delakoan daude txertatuta, zeina Batzordearen C (2008) Ebazpenaz onartu zen 2008ko otsailaren 15ean. Gainera, II. kapituluko neurriek finantzaketa gehigarria jaso ahal izango dute, estatuko laguntza gisa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura bakarrik.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN**

**5803**

DECRETO 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Siendo, de conformidad con la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, objetivos generales de la política de desarrollo rural de la multifuncionalidad y la sostenibilidad de la agricultura vasca y del conjunto de su medio rural, preservar las señas de identidad fundamentales del medio rural, promover la mejora e incremento de la capacidad competitiva tanto de la agricultura como de las empresas y estructuras económicas de las zonas rurales, en el presente decreto, y como ya se había hecho anteriormente mediante los Decretos 167/2000, 274/2000 y 100/2002, se regulan, las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se regula el procedimiento y condiciones de otorgamiento de ayudas económicas cuya concesión corresponde al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, dentro de los créditos que a tal efecto se prevean en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de conformidad con el decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

El Reglamento (CE) n.º 1083/2006 del Consejo, de 11 de julio, por el que se establecen las disposiciones generales sobre los Fondos Estructurales, define los objetivos a cuya consecución deben contribuir los Fondos Estructurales, así como los requisitos que han de cumplir los Estados miembros y las regiones para beneficiarse de los mismos. Por su parte, el Reglamento (CE) n.º 1698/2005 del Consejo de 20 de septiembre de 2005, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), recoge en su artículo 71 que determinadas medidas, como son las recogidas en el capítulo II de este decreto, serán cofinanciadas por el FEADER, siempre que se cumplan los requisitos en aquel recogidos y en el resto de la normativa aplicable. Así, tales medidas se incluyen en el «Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013», aprobado mediante Decisión de la Comisión C (2008) 704 de 15 de febrero de 2008. Además, estas medidas del capítulo II podrán recibir financiación adicional, en forma de ayuda de Estado y con cargo exclusivamente a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

III., IV. eta V. kapituluek, alde batetik, enpresak sortzera, handitzera eta modernizatzera zuzendutako laguntzak eta, bestetik, landa-guneetan eta etxebizitzari zuzendutako aldeetan lanpostuak sortzera zuzendutako laguntzak jasotzen dituzte. Horietarako, ez da Erkidegoko laguntzarik izango.

Laguntzen kudeaketarako, Itsasmendikoi, S.A. sozietate publikoa izendatzen da, erakunde laguntzailetzat, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusten den erregimenarekin bat etorriz. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautu da eta haiek kudeatzen laguntzen duten erakundeen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezarri dira.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean 19.etik 22.era bitarteko artikuluek diotenarekin bat etorriz egin du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak dekretu hau. Lege horren bidez, landa-eremuetan emakumeen parte-hartzea handitu nahi da, gizonen eta emakumeen arteko benetako eta egiazko berdintasunerantz aurrera eginez.

Horrenbestez, Landaberrirekin eta Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak proposaturik eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko urriaren 7an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Dekretuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan sustatu eta garatzeko jardueren eta inbertsioen finantzaketara zuzendutako dirulaguntzen emakida jasotzea eta arautzea. Laguntzak «Erein Programa» izenarekin ezagutzen dira.

2.– Dekretu honen aplikazioaren esparru geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu guztiak izango dira.

Hala ere, landa-eremuak ez diren eremuetan egindako inbertsioak, hurbileko landa-eremuetako herritarrei zerbitzuak ematen badizkie, horiek ere kontuan hartuko dira. Kasu horietan, hitzarmenen bidez, landa-biztanleek laguntzak eskuratzeko aukera berdinak dituztela bermatuko da

I. eranskinean argi eta garbi aipatzen dira dekretu honen aplikaziotik kanpo geratzen diren biztanlegune kontzentratuetako hiri-eremuak. Hiri-eremutzat joko dira 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien menpeko edozein biztanleguneren hiriguneak, edota % 45 baino gehiagoko lurzoru artifiziala eta hektarea eta biz-

Los capítulos III, IV y V recogen ayudas destinadas a la creación, ampliación y modernización de empresas, a la creación de empleo en zonas rurales y destinadas a la vivienda, para las que no se dispondrá de financiación comunitaria.

Para la gestión de las ayudas se designa a la Sociedad Pública Itsasmendikoi S.A. como Entidad Colaboradora de conformidad con el régimen previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participen en su gestión.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación ha elaborado el presente decreto de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, pretendiéndose el aumento de la participación de las mujeres en el ámbito rural con el fin de avanzar hacia la igualdad real de oportunidades entre hombres y mujeres.

En su virtud, de conformidad con Landaberri y con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 7 de octubre de 2008,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## NORMAS GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– Es objeto del presente decreto recoger, así como regular, la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de actividades e inversiones de promoción y desarrollo, en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Tales ayudas se identifican bajo la denominación de «Programa Erein».

2.– El ámbito geográfico de aplicación del presente decreto comprenderá la totalidad de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No obstante, aquellas inversiones que localizadas en zonas no rurales, presten servicio a la población de las zonas rurales cercanas, serán también contempladas. En estos casos, a través de convenios, se garantizará el acceso de forma igualitaria de la población rural al servicio promocionado.

En el anexo I se relacionan los ámbitos claramente urbanos de los núcleos concentrados de población que quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto, considerándose ámbitos urbanos todos los cascos urbanos de cualquier núcleo de población inframunicipal con más de 2.000 habitantes, o bien que

tanle bakoitzeko 5.000 euro baino gutxiagoko nekazal marjina gordin estandarra duten hiriguneak.

3.– Dekretu hau «Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana» (PDRS) (2007-2013) indarrean dagoenean aplikatuko da, osoosorik gauzatu arte.

***2. artikulua.***– Dirulaguntzen izaera eta modalitateak.

1.– Dekretu hau dela bide ematen diren kopuruak itzuli behar ez diren dirulaguntzak izango dira.

2.– Dekretuak ondorengo laguntza-modalitateak jasotzen ditu:

a) LGENFren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren artean batera finantzatu ahal daitezkeen edo Euskal Autonomia Erkidegoko fondoekin bakarrik finantzatu ahal daitezkeen laguntzak (II. kapitulua).

b) Enpresak sortzera, handitzera eta modernizatzera eta laguntza emateko azpiegituretara zuzendutako laguntzak (III. kapitulua).

c) Landa-guneetan lanpostuak sortzeko laguntzak (IV. kapitulua).

d) Etxebizitzari zuzendutako laguntzak (V. kapitulua)

***3. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– II. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko bi aukera daude: batetik, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek batera finantzatzea eta, horretarako, 1698/2005 Erregelamenduan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013ko Programan ezarritako baldintzetara egokitzea; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko fondoekin bakarrik finantzatzea, Estatuko laguntza gisa, nekazaritza eta basogintzaren alorrerako Estatuko 2007-2013ko laguntzei buruzko Europako Erkidegoko jarraibideekin bat etorriz.

2.– III., IV. eta V. kapituluetan arautako laguntzak osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira.

3.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren laguntza-kopuru guztiak ez du deialdiaren aginduan urtero ezartzen den haren finantzaketara zuzendutako gehienezko zuzkidura gaindituko, ezta haren eguneratzetik lortzen den kopurua ere, indarrean dagoen legedian aurreikusitako kredituen edo aurrekontualdaketen arabera.

Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko hori aldatu ahal izango da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean agortu ez den aurrekonturik izanez gero, laguntzei buruzko ebazpena eman baino

contengan un porcentaje de suelo artificial superior al 45% y un margen bruto standard agrario por hectárea y por habitante inferior a 5.000 euros.

3.– El presente decreto será de aplicación durante la vigencia del «Plan de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013», hasta su total ejecución.

***Artículo 2.***– Naturaleza de las ayudas y modalidades.

1.– Las ayudas que se concedan en virtud del presente decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Este decreto recoge las siguientes modalidades de ayudas:

a) Ayudas que podrán ser o bien cofinanciadas entre el FEADER y los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o bien financiadas únicamente con fondos de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Capítulo II).

b) Ayudas a la creación, ampliación, modernización de empresas y a sus infraestructuras de apoyo (Capítulo III).

c) Ayudas a la creación de empleo en zonas rurales (Capítulo IV).

d) Ayudas destinadas a la vivienda (Capítulo V).

***Artículo 3.***– Recursos económicos.

1.– Las ayudas previstas en el Capítulo II serán o bien cofinanciadas entre el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural «FEADER» y los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, debiendo adaptarse a las condiciones establecidas tanto en el Reglamento 1698/2005 como en el Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013, o bien financiadas exclusivamente con fondos de la Comunidad Autónoma de Euskadi como ayudas de Estado, de acuerdo con las Directrices comunitarias sobre ayudas estatales al sector agrario y forestal 2007-2013.

2.– Las ayudas previstas en los Capítulos III, IV y V se financiarán únicamente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la dotación global máxima destinada a su financiación que anualmente se establezca en la orden de convocatoria, o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente.

Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Agricultura, Pesca y Ali-

lehen. Hala gertatuz gero, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko da.

4.– Hemen ezarritako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, dekretu honen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

***4. artikulua.–*** Gastuak direla-eta jarraitu beharreko arauak.

1.– Behar bezala balioztatzeko, eskatzaileek proiektua gauzatzeko aurreikusten diren alderdien gaineko informazioa zehaztuko dute eskaeran, batez ere kostuei buruzkoa, aurrekontu eta proformako fakturak erantsita, eta, halaber, proiektua gauzatzeko aldiak zehaztuko dituzte.

2.– Inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoko landa-guneetan kokatu behar dira, dekretu honen 1.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Laguntza jaso dezaketen inbertsio eta jarduerak laguntza emateko ebazpenean ezartzen diren epeetan burutu beharko dira. Epe horiek finantzaketarako kredituen izaerari egokituko zaizkie. Hala ere, proiektuen iraupena ez da bi aurrekontu-ekitaldi baino gehiagokoa izango, laguntza eskatzen den ekitalditik aurrera.

Justifikaturiko arrazoirik bada, eta horretarako onuradunak eskaera arrazoitua aurkeztu ondoren, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak luzapena eman dezake ebazpen baten bitartez, eta luzapen hori ez da bi urte baino gehiagokoa izango.

4.– Diruz laguntzen diren inbertsio eta jardueren helburuari eutsi beharko zaio, gutxienez, jarduerak gauzatu eta hurrengo bost urteetan.

5.– Eskaera egiten duen pertsonak edo erakundeak neurriak hartuko ditu eskuratutako ekipo eta materialak egokienak izan daitezen, kalitate, kostu eta mantentze-lanari dagokionez.

***5. artikulua.–*** Onuradunak.

1.– Dekretu honetan arautako laguntzen onuradunak izango dira pertsona fisikoak, irabazteko asmoarekin edo asmorik gabeko pertsona juridiko-pribatuak, toki-erakundeak, toki-erakunde publikoak, zuzenbide publikoko korporazioak eta indarrean jasota dagoen beste edozein forma juridiko. Horiek guztiek, laguntzen modalitatean adierazitako baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete behar dituzte:

a) 1.2. artikuluan aurreikusitako eremuren batean egin behar da laguntza jaso dezakeen ekintzaren bat.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

2.– Enpresa bat martxan jartzeko eskatzen diren laguntzen kasuan (pertsonifikaturiko entitatearen mota edozein delarik), enpresaren kudeaketarako eratzen den entitatea izango da onuraduna. Horrela, eskatzailea

mentación, con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Las ayudas aquí establecidas se concederán mediante procedimiento concursal, tal y como se establece en el artículo 9 del presente decreto.

***Artículo 4.–*** Reglas a seguir respecto de los gastos.

1.– Para su correcta valoración, las personas solicitantes facilitarán en su solicitud la información adecuada sobre las previsiones justificadas de ejecución del proyecto, en especial en lo relativo a los costes, a través de presupuestos, y/o facturas proforma, y sus correspondientes plazos de ejecución.

2.– Las inversiones habrán de localizarse en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con el artículo 1.2 del presente decreto.

3.– Las inversiones y actividades auxiliables habrán de ejecutarse en los plazos previstos en la resolución de concesión de ayuda, acomodándose dichos plazos a la naturaleza de los créditos destinados a su financiación. No obstante, la duración de los proyectos no podrá ser superior a dos ejercicios presupuestarios, empezando a contar por el ejercicio en el que se solicita la ayuda.

Cuando medie causa justificada, y previa solicitud motivada de la persona beneficiaria, se podrá conceder una prórroga para la ejecución, mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral, que no será superior a dos ejercicios presupuestarios.

4.– Deberá mantenerse el destino de las inversiones y actividades subvencionadas durante, al menos, los cinco años posteriores a su realización.

5.– La persona o entidad solicitante adoptarán todas las medidas necesarias para garantizar que los equipos y materiales adquiridos sean los más adecuados en calidad, coste y mantenimiento.

***Artículo 5.–*** Personas beneficiarias.

1.– Podrán resultar personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente decreto las personas físicas, las personas jurídico-privadas con o sin ánimo de lucro, así como Entidades locales, Entes Públicos de carácter local, Corporaciones de derecho público y cualquier otra forma jurídica recogida en la legislación vigente, que cumplan, además de los requisitos señalados en cada modalidad de ayuda, los siguientes requisitos:

a) Realizar alguna de las actividades auxiliables dentro de alguna de las zonas previstas en el artículo 1.2.

b) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

2.– En caso de ayudas solicitadas para la puesta en marcha de una empresa, bajo cualquier modalidad de entidad personificada, tendrá la consideración de beneficiaria la entidad que se constituya para su gestión,

enpresaren legezko ordezkaria izango da eskaera behar bezala justifikatuz, 6.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraiki.

***6. artikulua.***– Eskabideak eta horiek aurkezteko epea.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerak, originala eta kopia, erakunde laguntzailean edo Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzan aurkeztuko dira, bai zuzenean edo landa-garapenerako elkarteen bidez. Eskaeretan ondorengo dokumentazioa erantsi behar da, dekretuari dagokion kapituluan berariaz zehaztuko denarekin batera:

a) Eskaera-orria, behar den moduan beteta.

b) Ordainketa egiteko agiriak («Hirugarrengoen alta»).

c) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia.

d) Eskatzailea eratzeko bidean dagoen pertsona juridikoa bada, legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

e) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, IFZren fotokopia, erakundearen estatutuak eta behar diren erregistro publikoetan eginiko inskripzioen egiaztagiriak.

f) Egin beharreko jardueraren azalpen-memoria. Honako hauek jasoko ditu: aurrekontu zehatzak eta/edo proformako fakturak, eta horiek betetzeko aurreikuspen zehaztua eta urteko ordainketa, bai eta horien finantzaketa, kokapena, enplegu-sorrera eta bideragarritasunari buruzko datuak ere. Hala badagokio, proiektatutako ekintzaren kudeaketa-eredua, eta, bereziki, pertsona juridikoen sorrera ere adieraziko dira.

g) Obra-proiektua, udalaren lizentzia eta/edo baimena edo, halakorik ezean, aldeko hirigintza-txostena.

h) Eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eguneratuta dituela egiaztatzen duten agiriak.

i) Zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da. Horren bidez, helburu berbereko beste laguntzarik edo beste de minimis laguntzarik eskatu den egiaztatuko da eta, hala bada, eskabide horien egoera (ukatua, erantzunaren zain edo onartua) eta eskatutako diru-kopurua zehaztu beharko da; bestela, beste laguntzarik ez dela eskatu adieraziko da.

2.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren agindu bidez, honako dekretu honetan arautuko laguntzen deialdia egingo da urtero, laguntza-eskaerak aurkezteko epeak zabalduko dira, aurrekontuko kreditu erabilgarriaren berri emango da eta laguntzen diren proiektuen iraupena zehaztuko da. Alderdi horiek guztiek ezin izango dituzte inola ere dekretu honetan ezarritakoak urratu.

actuando como persona solicitante quien ostente la representación legal de la misma de manera debidamente justificada conforme al artículo 6.1.d).

***Artículo 6.***– Solicitudes y plazo de presentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el presente decreto se presentarán en original y copia, ante la Entidad Colaboradora o ante la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, bien directamente o a través de las Asociaciones de Desarrollo Rural, adjuntando la siguiente documentación junto con la que específicamente se determine en el capítulo correspondiente de este decreto:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

b) Documentación para el libramiento de pagos («Alta de Terceros»).

c) Fotocopia del DNI de la persona física solicitante.

d) En el supuesto de que la solicitante sea una persona jurídica en constitución, fotocopia del DNI de su representante legal.

e) Fotocopia del NIF, Estatutos de la entidad y acreditación de su inscripción en los registros públicos correspondientes, en caso de que la solicitante sea persona jurídica.

f) Memoria descriptiva de la actuación a desarrollar, que deberá incluir presupuesto y/o factura proforma, previsión de plazos de ejecución y pago anual de las mismas, así como los datos sobre su financiación, localización, generación de empleo y viabilidad. En su caso, también se indicará el modelo de gestión de la actividad proyectada, y en concreto la constitución de entidades personificadas.

g) Proyecto de obra, licencia y/o permiso municipal o en su defecto informe urbanístico favorable.

h) Documento acreditativo de que la persona solicitante se halla al corriente de sus obligaciones tributarias, así como de pagos a la Seguridad Social.

i) Habrá de presentarse declaración jurada al objeto de acreditar si se han solicitado otras ayudas con el mismo objeto, así como otras de minimis, detallándose el estado de las mismas (denegada, pendiente de contestación o concedida) e importe o si, por el contrario, no se ha solicitado ninguna.

2.– Anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, entre otros extremos, se efectuará la convocatoria de las ayudas aquí reguladas, se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda, se dará publicidad al crédito presupuestario disponible y se determinará la duración de los proyectos objeto de ayuda, no pudiendo contravenir su contenido lo dispuesto en el presente decreto.

***7. artikulua.–*** Aurkeztutako eskabideetako akatsen zuzenketa.

Eskabidean akatsen bat badago edo zehaztasunez bete ez bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio. Eskatzaileak 10 eguneko epea izango du akatsak konpontzeko; aipatutako epean akatsak konpontzen ez baditu, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak ebazpena eman ondoren.

***8. artikulua.–*** Laguntzak kudeatu, kontrolatu eta artatzea.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lana Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari eta erakunde laguntzaileari dagokie, dagokion hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Diruz lagundutako jardueren kontrola eta artapena Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari dagokio. Zuzendaritzak egoki derizkion ikuskapenak egin ahal izango ditu dirulaguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzatzen direla ziurtatzeko; horretarako, onuradunak eskatzen zaien dokumentazioa eta informazioa aurkeztera behartuta daude.

2.– Dirulaguntza eman aurretiko baldintza gisa, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagokio ikuskapenak egin eta dirulaguntza jaso duten proiektuak behar bezala burutzen ari direla ziurtatzea. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila arduratzen da dirulaguntza eta indarrean dagoen araudiari dagozkion gainontzeko jarduerak ordaintzeaz.

***9. artikulua.–*** Laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko prozedura.

1.– Laguntza arau honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek lortuko dute eta, horrela, onuradunak izango dira.

2.– Onuradun bakoitzari emandako laguntza zehatza dekretu honen hurrengo artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoaren irizpenak aplikatuz lortuko da.

3.– Dekretuan arautzutako laguntzak emateko prozedura, lehiaketa izango da.

4.– Urtero eskabideak aurkezteko epea zabaltzen duen aginduan ezartzen den gehienezko zuzkidura ez bada nahikoa dirulaguntza jaso ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, zuzkidura banatzeko modua urteko deialdian zehaztuko da.

***10. artikulua.–*** Batzordea eta balorazio-irizpideak.

1.– Aurkezten diren eskaerak aztertu eta baloratuko dituen balorazio batzordea eratuko da. Bertan Arrantza eta Nekazaritza Garapeneko Sailburuordetzako hiru teknikari ariko dira, Landaren eta Itsasertzaren Gara-

***Artículo 7.–*** Subsanación de defectos en las solicitudes.

Si en la solicitud se advirtiera algún defecto o inexactitud se le comunicará a la persona solicitante, quien dispondrá de un plazo de 10 días para proceder a su subsanación, transcurrido el cual sin haber procedido a dicha subsanación se le tendrá por desistida en su petición, previa resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral.

***Artículo 8.–*** Gestión de las ayudas, control y seguimiento.

1.– Las tareas de gestión de las ayudas previstas en el presente decreto corresponderán a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y a la Entidad Colaboradora según lo establecido en el correspondiente convenio.

El control y seguimiento de las actividades subvencionadas corresponde a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, pudiendo realizar cuantas inspecciones considere oportunas en orden a comprobar la correcta ejecución de los proyectos subvencionados, a cuyos efectos las personas beneficiarias estarán obligadas a facilitar cuanta documentación e información les sea solicitada.

2.– Corresponderá al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, y como condición previa para su pago, la inspección y certificación de la efectiva ejecución de los proyectos subvencionados. Corresponderá al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco el pago de la subvención y las demás actuaciones que le correspondan según la normativa vigente.

***Artículo 9.–*** Procedimiento de adjudicación y cuantificación de las ayudas.

1.– Obtendrán ayuda todas aquellas personas solicitantes que cumplan los requisitos y condiciones establecidos en la presente norma, convirtiéndose así en personas beneficiarias.

2.– La determinación de la ayuda concreta a conceder a cada persona beneficiaria se obtendrá aplicando los criterios de cuantificación de las ayudas establecidos en el artículo siguiente del presente decreto.

3.– El procedimiento para la concesión de las ayudas aquí reguladas, será el concurso.

4.– En el supuesto de que la dotación global máxima que se establezca en la orden que anualmente abra el plazo de presentación de solicitudes no alcanzase para atender a la totalidad de las que cumplieran los requisitos exigidos para poder ser subvencionables, la forma en que dicha dotación será distribuida, se determinará en dicha convocatoria anual.

***Artículo 10.–*** Comisión y criterios de valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por tres personas de carácter técnico de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero desig-

peneko zuzendariak izendatuak. Batzordean, gainera, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatuko da.

2.– Erakunde laguntzailearen ezagutza bereziak kontuan hartuta, eta eskaeren balorazio hobea ahalbidetze aldera, balorazio batzordean haren teknikari maila bereko pertsona batek edo gehiagok parte hartuko du.

Era berean, zenbait proiektuk beste sail edo administrazio publiko batzuetako jarduketa-arloei eragin diezaioketela uste bada, horiek balorazio batzordean parte hartuko dute.

3.– Proiektuak baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Gunean oinarrituta:

– Proiektua kokatuko den guneko landatartasun-maila.

– Gunearen garapena, proiektu-motari dagokionez.

Irizpidearen betetze-mailaren arabera lor daitekeen puntuazio maximoa 30 puntu da.

b) Eskualdeko Landa Garapenaren 2007-2013ko Planean oinarrituta:

– Dagokion Eskualdeko Landa Garapenaren 2007-2013ko Planera egokitzea.

Bigarren irizpidearen betetze-mailaren arabera lor daitekeen puntuazio maximoa 30 puntu da.

c) Proiektuan eta sustatzailean oinarrituta:

– Proiektua bideragarria izatea teknikaren, ekonomiaren eta finantzaketaren aldetik.

– Sustatzailearen bermea izatea teknikaren, ekonomiaren eta finantzaketaren aldetik.

– Ekoizpen-inbertsioak:

* Lanpostuak sortzea. Bereziki kontuan hartuko dira gizonentzako eta emakumeentzako lanpostuak sortzea sustatzen duten proiektuak eta, proportzio berean, proiektu horiek garatuko diren eremu geografikoan gizon eta emakumeen langabezia-tasa sustatzen duten proiektuak. Horrez gain, kontuan hartuko dira baita ere ordezkaritza gutxien duen sexua jarduera-sektore batean nagusia den beste sexuaren artean sartzea sustatzen duten proiektuak. Horrela, entitateek berdintasuna lortzeko planak edo aukera-berdintasuneko erakunde laguntzailea izatea baloratuko da.

* Jarduera endogenoa-Gunean mantentzeko sustatzailearen eta jardueraren ahalmena.

* Sinergia-Eragindako ondorio onak sortzeko proiektuaren gaitasuna.

– Inbertsio ez-produktiboak:

nados por el Director de Desarrollo Rural y Litoral, en la que quedará garantizada la presencia equilibrada de mujeres y hombres.

2.– Atendiendo a los conocimientos específicos de la Entidad Colaboradora, y de cara a posibilitar una mejor valoración de los solicitudes participarán en la Comisión de valoración una o más personas de nivel técnico de aquélla.

Asimismo, en caso de estimarse que determinados proyectos pudieran afectar a ámbitos de actuación de otros Departamentos o Administraciones Públicas, se dará participación a los mismos en la Comisión de valoración.

3.– La valoración de los proyectos se realizará según los siguientes criterios:

a) En base a zona:

– El grado de ruralidad de la zona en la que se ubique el proyecto.

– Desarrollo de la zona en relación al tipo de proyecto.

La puntuación máxima que se puede obtener en función del grado de cumplimiento de este criterio será de 30 puntos.

b) En base al correspondiente PDR Comarcal 2007-2013:

– Adaptación al correspondiente Programa de Desarrollo Rural Comarcal 2007-2013.

La puntuación máxima que se puede obtener en función del grado de cumplimiento de este segundo criterio será de 30 puntos.

c) En base al proyecto y promotor:

– Viabilidad técnico-económica y financiera del proyecto.

– Garantía técnico-económica y financiera del promotor.

– Inversiones productivas:

* Creación de empleo. Se tendrán especialmente en cuenta aquellos proyectos que fomenten la creación de empleo para hombres y mujeres en la misma proporción que la tasa de desempleo de unas y otros en la zona geográfica en la que se vayan a desarrollar, así como los proyectos que inserten al sexo menos representativo en sectores de actividad con predominio de uno de los dos, valorándose el hecho de que las entidades dispongan de un Plan de Igualdad o reconocimiento de entidad colaboradora en igualdad de oportunidades.

* Actividad endógena-Capacidad del promotor y actividad para mantenerse en la zona.

* Sinergia-Capacidad del proyecto para generar efectos positivos inducidos.

– Inversiones no productivas:

* Erakundeen partaidetza.

* Biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea, bereziki, egoera ahulenean dauden emakumeen eta kolektiboen egoera hobetuko duena.

* Proiektuaren proportzionaltasuna eskaerari eta beharretara.

Hirugarren irizpidearen betetze-mailaren arabera lor daitekeen puntuazio maximoa 30 puntu da.

Eskatzaileak, laguntza jaso ahal izateko, lehen bi irizpide orokorretan lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 35 puntu da, kontuan hartuta puntuazioa maximoa 90 puntu dela.

Emandako laguntzen zenbateko zehatza, lortutako puntuazioaren arabera, honako baremazio-taulan oinarritzen da:

* Participación institucional.

* Contribución a la mejora de la calidad de vida de la población, en especial la que mejore la situación de la mujer y la de colectivos que partan de una situación menos favorecida.

* Proporcionalidad del proyecto a la demanda y necesidades existentes.

La puntuación máxima que se puede obtener en función del grado de cumplimiento de este tercer criterio será de 30 puntos.

La persona solicitante deberá obtener una puntuación mínima de 35 en los dos primeros criterios generales para poder acceder a la ayuda, teniendo en cuenta que la máxima es de 90 puntos.

La cuantificación concreta de las ayudas a conceder, en función de la puntuación obtenida, se fundamenta en la siguiente tabla de baremación:

| II. Kapituluan aurreikusitako proiektuak | | |
|---|---|---|
| Balorazio-txostenaren puntuazioa | Toki-erakundeak eta erakunde publikoak | Proiektu ez-produktiboak, beste erakundeak |
| 80 eta 90 punturen artean | % 100era arte | % 100era arte |
| 70 eta 79 punturen artean | % 90era arte | % 85era arte |
| 60 eta 69 punturen artean | % 80ra arte | % 65era arte |
| 50 eta 59 punturen artean | % 65era arte | % 45era arte |
| 40 eta 49 punturen artean | % 45era arte | % 25era arte |
| 35 eta 39 punturen artean | % 25era arte | % 10era arte |
| 35 puntu baino gutxiago | % 0 | % 0 |

| III. eta V. kapituluetan aurreikusitako proiektuak | | | |
|---|---|---|---|
| Balorazio-txostenaren puntuazioa | Toki-erakundeak eta erakunde publikoak | Proiektu ez-produktiboak, beste erakundeak | Ekoizpen-proiektuak |
| 80 eta 90 punturen artean | % 100era arte | % 35era arte | % 35era arte |
| 70 eta 79 punturen artean | % 90era arte | % 30era arte | % 30era arte |
| 60 eta 69 punturen artean | % 80ra arte | % 25era arte | % 25era arte |
| 50 eta 59 punturen artean | % 65era arte | % 20era arte | % 20ra arte |
| 40 eta 49 punturen artean | % 45era arte | % 15era arte | % 15era arte |
| 35 eta 39 punturen artean | % 25era arte | % 10era arte | % 10era arte |
| 35 puntu baino gutxiago | % 0 | % 0 | % 0 |

| IV. Kapituluan aurreikusitako proiektuak | |
|---|---|
| Sortutako lanpostuarengatik | 5.591,88 euro |
| Iraupen luzeko langabeak | 6.010,12 euro |
| Familia-zamak dituzten emakumeak | 6.010,12 euro |
| Elbarriak | 6.010,12 euro |

| *Proyectos contemplados en el Capítulo II* | | |
|---|---|---|
| *Puntuación informe de valoración* | *Entidades locales y ent. públicas* | *Proyectos no productivos otras entidades* |
| *Entre 80 y 90 puntos* | *Hasta 100%* | *Hasta 100%* |
| *Entre 70 y 79 puntos* | *Hasta 90%* | *Hasta 85%* |
| *Entre 60 y 69 puntos* | *Hasta 80%* | *Hasta 65%* |
| *Entre 50 y 59 puntos* | *Hasta 65%* | *Hasta 45%* |
| *Entre 40 y 49 puntos* | *Hasta 45%* | *Hasta 25%* |
| *Entre 35 y 39 puntos* | *Hasta 25%* | *Hasta 10%* |
| *< de 35 puntos* | *0%* | *0%* |

| *Proyectos contemplados en los Capítulos III y V* | | | |
|---|---|---|---|
| *Puntuación informe de valoración* | *Entidades locales y ent. públicas* | *Proyectos no productivos otras entidades* | *Proyectos productivos* |
| *Entre 80 y 90 puntos* | *Hasta 100%* | *Hasta 35%* | *Hasta 35%* |
| *Entre 70 y 79 puntos* | *Hasta 90%* | *Hasta 30%* | *Hasta 30%* |
| *Entre 60 y 69 puntos* | *Hasta 80%* | *Hasta 25%* | *Hasta 25%* |
| *Entre 50 y 59 puntos* | *Hasta 65%* | *Hasta 20%* | *Hasta 20%* |
| *Entre 40 y 49 puntos* | *Hasta 45%* | *Hasta 15%* | *Hasta 15%* |
| *Entre 35 y 39 puntos* | *Hasta 25%* | *Hasta 10%* | *Hasta 10%* |
| *< de 35 puntos* | *0%* | *0%* | *0%* |

| *Proyectos contemplados en el Capítulo IV* | |
|---|---|
| *Por empleo creado* | *5.591,88 euros* |
| *Personas paradas de larga duración* | *6.010,12 euros* |
| *Mujeres con cargas familiares* | *6.010,12 euros* |
| *Personas minusválidas* | *6.010,12 euros* |

4.– Balorazio batzordeak, dekretu honetan aurreikusitako laguntzak esleitzeko irizpideen oinarriei buruz, behar den erabaki-proposamena igorriko dio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariari.

***11. artikulua.***– Ebazpena.

1.– Balorazio batzordearen proposamena ikusirik, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak eskabideak ebatziko ditu. Ebazpen-proposamenarekin bat ez datorren erabakia hartzen badu (proposamen hori ez baita loteslea izango), arrazoiak azaldu beharko ditu.

LGENFk batera finantzatutako laguntzak direnean, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuan adierazi bezala jokatuko da. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea osatzen da eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen da.

2.– 6 hilabete igaro ostean, laguntza eskatzeko epea zabaldu zenetik, ebazpen-jakinarazpenik jaso ezean norberaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

4.– Dicha Comisión, sobre la base de los criterios de adjudicación de las ayudas previstas en el presente decreto, elevará la oportuna propuesta de resolución al Director de Desarrollo Rural y Litoral.

***Artículo 11.***– Resolución.

1.– Corresponde al Director de Desarrollo Rural y Litoral, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, la resolución de las solicitudes, exigiéndose la motivación de dicha decisión cuando se aparte de la propuesta de resolución, la cual no tiene carácter vinculante.

Cuando se trate de ayudas cofinanciadas por el FEADER, se estará a lo dispuesto en el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, por el que se constituye el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establece su organización y funcionamiento.

2.– Transcurridos 6 meses, desde la apertura del plazo de solicitud de la ayuda, sin haberse dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas a los efectos de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Dekretu honetan laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinaraziko da. Horrez gainera, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak ebazpena emango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman daitezen dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak eta erakunde edo pertsona onuradunak.

4.– Proiektuak onesteko eta dirulaguntza emateko baldintza hau ezarri ahal izango zaie eskatzaileei: aurkeztutako proiektua dekretu honetan eta, kasu honetan, dagokion planean ezarritako irizpideetara hobeto moldatzeko behar diren aldaketa guztiak egin beharra.

5.– Laguntzen emakidari buruzko ebazpenak honakoa ezartzen du:

a) Onartutako eskaeren zerrendak honakoa adieraziko du: pertsona edo erakunde onuraduna, diruz lagundutako proiektua, emandako dirulaguntzaren inbertsioa eta zenbatekoa eta LGENFren kargura finantzatutako zatia bereizten da, II. kapituluan aurreikusitako laguntzen kasuan.

b) Ukatutako eskaeren zerrenda, ukatzea azaltzen duten arrazoiekin batera.

c) Proiektuak egiteko epea.

d) Onuradunen betebeharrak.

e) Onuraduna eratzear dagoen pertsona juridikoa bada, laguntza jasotzeko baldintza gisa klausula bat gehituko da: onuraduna erakunde pertsonifikatua izatea.

***12. artikulua.–*** Emandako laguntza onartzea.

Onuradunak laguntza onartu duela ulertuko da, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik aurrera 15 eguneko epean, ez badu Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzan ukatzeko idazkirik aurkezten.

***13. artikulua.–*** Betebeharrak.

Dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Laguntzari eman zaion xede horretan erabiltzea eta emakida-ebazpenean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

b) Diruz lagundutako inbertsioak bere xedean irautea hurrengo bost urteetan gutxienez.

c) Erakunde laguntzailearen, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren eta, kasu honetan, Europar Batasuneko erakundeen esku jartzea inbertsioa eta gastuak egin direla egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

3.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la resolución de las ayudas previstas en este decreto, por resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral se publicará en el BOPV el total de las subvenciones y entidades o personas beneficiarias al amparo del presente decreto.

4.– La aprobación de los proyectos y la concesión de la subvención correspondiente podrá supeditarse a la introducción por las personas solicitantes de aquellas modificaciones que sean exigidas para una mejor adaptación del proyecto presentado a los criterios establecidos en el presente decreto y, en su caso, en el Plan correspondiente.

5.– La resolución de concesión de ayudas establecerá lo siguiente:

a) Relación de las solicitudes aprobadas expresando la persona o entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado, la inversión y el importe de la subvención concedida con distinción de la parte financiada con cargo al FEADER en el caso de ayudas contempladas en el Capítulo II.

b) Relación de las solicitudes denegadas junto con los motivos que fundamentan su denegación.

c) El plazo de ejecución de los proyectos.

d) Las obligaciones de las personas beneficiarias.

e) En el caso de que la persona beneficiaria sea una persona jurídica en fase de constitución, se añadirá una cláusula que recoja como condición para recibir la ayuda la constitución de la misma como entidad personificada.

***Artículo 12.–*** Aceptación de la ayuda concedida.

Se entenderá que la persona beneficiaria ha aceptado la ayuda si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación de la subvención, no presenta escrito de renuncia ante la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

***Artículo 13.–*** Obligaciones.

Las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente decreto deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la resolución de concesión.

b) Mantener el destino de la inversión subvencionada al menos durante los cinco años posteriores a su realización.

c) Poner a disposición de la Entidad Colaboradora, del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco y, en su caso, de las instituciones de la Unión Europea, toda la documentación necesaria para que puedan verificar la ejecución de la inversión y la realización del gasto.

d) Onuradunak bere gain hartuko ditu, oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2. atalean ezartzen diren betebeharrak, eta, bereziki, behartuta egongo da xedapen honen kontura jasotako laguntzei buruz Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak haien eginkizunak betetzeko eska ditzaketen argibide guztiak ematera.

e) Kasu honetan, beharrezkoa izango litzatekeen publizitatea ematea jasotako fondo publikoen jatorriari buruz.

f) Dirulaguntzaren bat lortuz gero edo beste de minimis laguntzarik jasoz gero, helburu bera betetzeko, horren berri ematea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari.

***14. artikulua.***– Inguruabarrak ez betetzea eta aldatzea.

1.– Jarraian adierazten diren kasuetan, inguruabarrak ez direla bete joko da:

a) Jasotako laguntzak, osorik zein zatika, dekretu honetan adierazi bezala onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) Dekretu honetan ezarritako betebeharrak edo, kasua bada, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoak ez betetzea.

c) Beste xedapen batzuetan ezarritako betebehar orokorrak ez betetzea.

2.– Artikulu honen 1. paragrafoan azaldutako kasuren bat gertatuz gero, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan aurreikusitakoa bete ondoren, horren bidez, Euskadiko Ogasun Orokorraren Iturburu Ordenatzaileei buruzko Testu Berritua onetsi da eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, jasotako dirua eta hark sortutako interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari.

3.– Baldintzak ez betetzeagatik egiten diren espedienteak Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak izapidetu eta ebatziko ditu.

4.– Dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira, onuradunak aldez aurretik jakinarazita, horren ondorioz, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak erabakia hartuko du emandako laguntzaren mantentzearen inguruan. Dena den, beste administrazio nahiz erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badira, edota helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da; kasu horretan, hala ere, dirulaguntzen onuradun izateko dekretu honetan jarritako oinarrizko baldintzak gorde egingo dira.

d) Asumir las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en especial facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas recibidas con cargo a este decreto.

e) Darle la publicidad que, en su caso, fuera requerida sobre la procedencia de los fondos públicos recibidos.

f) Comunicar al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad, así como otras ayudas de minimis que se perciban.

***Artículo 14.***– Incumplimiento y modificación de las circunstancias.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento los siguientes:

a) La aplicación total o parcial de las ayudas percibidas para actividades distintas de las previstas en el presente decreto.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente decreto, o en su caso, de las que se establezcan en la resolución concedente.

c) El no cumplimiento de cualquier otra obligación que así se halle establecida con carácter general por otra disposición.

